



[Cast/Eusk] Porque somos internacionalistas nos quieren ilegalizar y encarcelar

ASKAPENA :: 15/02/2015

España, ese gran imperio lleno de traumas y complejos, lanza una autentica ofensiva a sectores que nadie en este pueblo puede aceptar que sean criminalizados

Castellano

Ante la petición de cárcel y la ilegalización comunicado de los encausados Walter Wendelin, Aritz Ganboa, Dabid Soto, Unai Vázquez eta Gabi Basañez:

A lo largo de este año 2015, cinco de las personas que en el año 2010 fuimos detenidas bajo la acusación de formar parte del aparato de internacionales de ETA vamos a ser juzgadas en la Audiencia Nacional española.

Hoy, transcurridos más de cuatro años de aquella redada policial que acabó con nosotros 5 en prisión, se demuestra que todo fue una gran mentira. Ninguno de aquellos titulares que ocupaban las páginas de la prensa estatal o local tenían más rigurosidad que las falsedades que se escupen desde el ministerio de interior español.

El gobierno español utilizó la operación policial contra Askapena para continuar con su estrategia de mandar un único mensaje a la Izquierda Abertzale: la única salida es la cárcel o la rendición. Se equivocaron cuando pensaron que nos tenían contra las cuerdas. Y se equivocan si piensan que en este nuevo camino hemos perdido capacidad para lograr conquistar las libertades y derechos que como pueblo y como ciudadanos nos corresponden.

La nuestra fue una redada pensada para castigar a la Izquierda Abertzale. Pero no solo eso. Hoy conocemos, fruto del escrito de acusación presentado por la fiscalía del estado, que aquella primera intención escondía tras de si algo más perverso si cabe.

El estado español a través de su fiscalía ha desvelado que además de la impactante foto que buscaba con nuestras detenciones, perseguía un objetivo con un calado político mucho mayor.

Su objetivo era torpedear la labor internacionalista que este pueblo realiza desde hace décadas para romper con el silencio que ellos tratan de imponer en el exterior de sus fronteras. Su objetivo era silenciar a cientos de brigadistas. Silenciar a cientos de testigos directos de los crímenes del Estado Español y de sus aliados internacionales. Su objetivo era romper con los lazos de solidaridad con Euskal Herria.

Pretendían hacer que en nuestros viajes ignorásemos la realidad, *obviando la existencia de centenares de represaliados y represaliadas vascas repartidas por todo el mundo*. Querían que solo aquellos debates controlables llegasen a los Foros internacionales.

El estado español, a través de su fiscalía, repite a lo largo de más de 100 páginas argumentos cientos de veces repetidos para tratar de ensuciar el nombre de Askapena. Deja

clara su obsesión por tratar de silenciar la voz de los pueblos. La voz de aquellas personas que hemos hecho de la solidaridad internacionalista nuestra apuesta militante.

Y va más allá. España, ese gran imperio lleno de traumas y complejos, lanza una autentica ofensiva a sectores que nadie en este pueblo puede aceptar que sean criminalizados. El salto cualitativo que representa la petición de ilegalización de organizaciones y colectivos como Askapena, Askapeña, Elkar Truke o Herriak Aske, es simplemente inadmisibile.

No nos podemos quedar quietos. No vamos a admitir que nadie ponga límites a nuestra militancia política. No vamos a dejar que este sea un juicio más. No es solo la libertad de nosotros 5 lo que está en juego.

Hay más, mucho más. Como internacionalistas, como parte del movimiento popular que somos y como miembros de la izquierda independentista vasca vamos a ser un instrumento para parar al estado. Para parar la locura que a todo imperio en decadencia le termina por llegar. Ese es nuestro compromiso. Y en esa apuesta nos vamos a encontrar con la Euskal Herria que ha sido ejemplo de ternura, de lucha y de solidaridad. La Euskal Herria que siente en lo más hondo cualquier injusticia contra cualquiera en cualquier parte del mundo.

Euskera

2010ean ETako nazioarteko aparatuko kide izatea egotzita atxilotuak izan ginen kideetatik bost epaituak izango gara 2015. urtean Espainiako Entzutegi Nazionalean.

4 urte baino gehiago igaro dira sarekada polizial hartatik, eta argi geratu da gezur handi bat baino ez zela izan hura. Bertako eta kanpoko egunkarietako portada edo albistegietako izenburu nagusiek, Espainiako barne ministerioaren bozgorailu leial baino ez ziren bilakatu orduan.

Espainiako Gobernuak, Askapenaren kontrako operazioa, ezker abertzaleari mezu bat bidaltzen erabili zuen: irtenbide bakarra espetxea edo amore ematea da. Oker zebiltzan ordean estu hartu gintuztela pentsatu zutenean. Eta oker dabiltza orain ere bide berri honetan, gaitasuna galdu dugula uste badute, askatasuna eta herri nahiz herritar gisa dagozkigun eskubideak eskuratzeko borrokan.

Gurea, Ezker Abertzalea zigortzeko pentsatutako sareka bat izan zen.

Baina ez hori bakarrik. Gaur badakigu, estatuko fiskalak aurkezturiko akusazio idatzien bitartez, lehen asmo hark bere baitan bigarren asmo zitalago bat ezkututzen zuela.

Espainiako Estatuak, fiskalaren bitartez aditzera eman du, gure atxilotekin bilatzen zuen argazki hartaz gain, sakontasun politiko handiagoko helburua zuela esku artean.

Bere asmoa herri honek hamarkada luzeetan zehar eginiko lan internazionalista zangotrabatzea zen, hain zuzen, estatuaren mugetatik kanpo ezarri nahi duten isiltasuna hausten ari ginelako. Bere asmoa ehunka brigadista isilaraztea zen. Estatu Espainiarraren eta nazioarteko konplizeen estatu krimenen lekukoak alboratzea. Beraien egitekoa Euskal Herriarekiko elkartasun zubiak eraistea zen, munduan zehar barreiatutako ehunka preso politiko eta errefuxiatuen izaera ukatuz.

Beraien nahia Nazioarteko Foroetan ez zedila euren gustuko ez zen eztabaidarik piztu ziurtatzea zen.

Espainiar Estatuak, fiskalaren bitartez, 100 orrialde baino gehiagotan argudio errepikakorren bidez, Askapenaren izena zikindu besterik ez du nahi. Eta argi uzten du herrion ahotsa isilarazteko bere amorrua, hain justu elkartasun internazionalistaren alde apustu militantea egin genuenon bidea oztopatuz.

Aurrerago doa ordea bere eginahalean. Espainiak, trauma eta konplexuz betetako inperio handi honek, erasoaldi bortitza abiarazi du herri honetan inork kriminalizatzea onartu ezin dugun sektoreen aurka.

Askapena, Askapeña, Elkar Truke edo eta Herriak Aske antolakunde eta kolektiboak ilegalizatzeko eskaera jauzi kualitatibo itzela da, eta zinez onartezina.

Ezin gara baina besoak gurutzaturik gelditu. Ez diogu inori gure militantzia politikoari mugak jartzen utziko. Ez dugu beste epaiketa bat gehiago izatea onartuko, ez baita bost kideon askatasuna soilik jokoan dagoena. Askoz gehiago da. Internazionalista bezala eta herri mugimenduko kide garen heinean, Estatua geldiarazteko tresna izango gara, erortzen doan inperio baten erokeria nahiak uxaraziz. Hori da gure konpromisoa. Eta erronka honetan, xamurtasun, borroka eta elkartasun eredu izan den Euskal Herri hori izango dugu bidelagun. Munduko edozein txokotako injustiziak bere barrenean sentitzen dituen Euskal Herria.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/cast-eusk-porque-somos-internacionalistas